

ELKARRIZKETAK :

Lanaren lan honetan saiatu naiz bideoan agerturiko elkarrizketa guztien transkribazioa egiten, ze ulertzen du oso zaila dela euskera zahar bate-tan ongi ulertzea zer esaten hari den. Honela bideoan agertzen den beza-la saiaturiko naiz jartzen.

E L K A R R I K E T A 1 :

- Egunon, Berueteko Iosune naiz, hamabost urte ditut eta Berueten jaio nahiz eta Oronoz Mugairen estudiatzen du. Berueten, ba ohitura batzuk egoten dira eta Urtarrilan bostean, errege bezperan ba gazteek txintxa-
rriak artu eta herri barnean ibiltzen dira goizean erregeei ongi etorria emateko. Eta gero hamarretan joaten dira elizara herriko jendea eta dan-dak oso azkar jotzen dute erregeei ongi etorria emateko eta etxeko ema-kume zaharra ba asten dira ba soinua ateratzen eta erregeei ongi eto-
rria ematen zaie.

Gero otsailan 2-a 4 eta 5-a izaten dira Berueteko Ihauteriak. Asten dira ostiralean hamarretan botatzen dira koheteak eta gero egiten dute Errikoetxean, Ostatuan, afari bat eta han gazteek ematen dute hasiera Ihauteriei afari batekin eta gero Modesto jotzen du musika.

Eta larunbatean ba gazteek ibiltzen dira etxez-etxe Modesto-
rekin.

-Ze ordutan hasten dira etxez-etxe ibiltzen?

-Ba hamarretan edo horrela hasten dira gazteek etxez-etxe.

-Lehenengo gosaldu egiten al dute Errikoetxean?

-Bai, Lehenengo gosari bat egiten dute eta gero joaten dira etxez-etxe musikarekin eta etxekoek ematen diete ardoa eta zenbait jateko eta ema-
ten diote dirua eta biltzen dutena gero ostatura eramaten dute eta han egiten dute afari bat edo bazkari bat. Eta bazkalduta ondoren,ba,
arratsaldean jotzen dute musika pisko bat eta gero egiten dute afaria.

-Etxez-etxe joaten badira gazteek berandu bukatuko dute ezta?

-Bai, oso berandu bukatzen dute, zortzitan edo... joaten dira baserri-
tara eta...

-Bordetara joaten al dira berriz?

-Bai, joaten dira etxez-etxe eta gero badira baserri batzuk aparte dau-
denak eta kotxea hartu eta joaten dira eta han gazteek eta Modestorekin ibiltzen dira.

-Trikitrisa edo akordeonakin egiten du horrek, ezta?

-Akordeonakin ibiltzen da bai.

-Eta Martxoa aldean zer egiten da Berueten?

-Martxoa San Jose eguna...

-Zein de hemeretzi?

-Bai, hemeretzi, ba han, ba hemen ~~ohitura~~ denez San Jose loreak hartzen dira, San Jose loreak dira horiak eta artu eta eramaten dira elizara eta gero han birjinari eramaten diote loreak, San Jose eskeintzen diote loreak eta ohitura denez ba urtero egiten da hori.

-Eta gero, orduan Apirilean zer egiten da, Aste Santuan eta?

-Ba, Aste Santuan, egiten dute meza bat eta herrikoek eramaten dute, ba ura eta egurrak eta kanpoan egiten da su haundi bat eta ura bedeinkatu egiten da eta herrikoek eramaten dute egurra eta gero egurrak hori erretan ondoren, eramaten dute pisko bat etxera eta han suari botatzen dute eta gero ura bedeinkatua hartzen dute jarra batean eta eramaten dute etxera eta orduan egunero bedeinkatutako ur horrekin eta errosarioa egiten dute.

-Errosarioa...

-Ohitura denez... Gero ohitura denez, ba egunen batean gurutzeak hartu eta elizari ematen diote buelta bat.

-Buelta bat zertarako ematen diote?

-Ba... Ohitura denez, gurutzeak hartu eta...

-Zerbait errezatzen al dute, bueltak ematen dituzten bitartean?

-Bai mate errezatu egiten dut gurutzea hartuta...

-Maiatzan, zer egiten da?

-Ba, Maiatzan urtero bezala joaten dira mendira eta mendian hartzen dute zuhaitz haundi bat eta herrira eramaten dute eta han jartzen dute eta gero ba...

-Moztu egiten al dute edo sustraiarekin atera?

-Moztu egiten dute eta gero zulo batean sartu.

-Elizaren barruan edo kanpoan?

-Kanpoan, kanpoan.

-Larrainean edo...

-Hartzen dute arbola eta gero eramaten dute belarra edo... lore batzuk eta hori bedeinkatu egiten dute.

-Dena bedeinkatu egiten da?

-Bai, eta gero hori gordetzen da eta gero San Juan bezperan egiten dute horrekin sua. Ibiltzen dira saltoka jendea "sarna fuera San Juan Bautista" esaten dute eta salto egiten dute herriko jendea eta gero egiten dute afari bat.

-Ze herriko jendearekin Errikoetxean, ezta?

-Gero, egiten da afari bat eta ohitura denez egiten da su haundi bat

herriko plazaren erdian eta han denek ibiltzen dira.

-Saltoka edo?

-Bai eta gero ere ekartzen dute musika eta jendea ibiltzen dira plazan dantzaka suaren... suaren ondoan.

-Inguruan edo?

-Inguruan bai, dantzan eta...

-Eta zin jotzen du Modesto ere.

-Modestok bai, Modesto asko etortzen da egitea.

-Eta gero, zer daukagu? Julio aldean edo zer egiten da?

-A ba Maiatzan haste dira belarrak egiten.

-A bainan Maiatzan asten al dira?

-Ba, batzuk bai.

-A eguraldia igual.-

-Bai segun eguraldia, belarra ongi ateratzen bada batzuk asten dira, belarra moztu eta hoiekin silo batean sartzen dute eta egiten dute siloa. Beste batzuk egiten dute orain hasi dira bolak egiten modernatzen hasi dira.

-A makinakin eta...

-Bai.

-Plastikozko bolak egiten dituzte, ezta?

-Bai bolak hasi dira egiten eta hori ia eguraldi ona hasten denean belarra moztu eta hori egiten ditu sekatu eta batzeuk egiten dute ganbara eramanez horrela eta beste batzuk makinarekin pakak egiten dute.

-Eta horiek dira ganbaran sartzen direna, ezta? Behientzako janari eta.. Eta gero Abuztu aldea Beruetekeo festak ez al dira?

-Bai, lehenago egiten ziren Urrian, Urrian egiten zuten festa, bost egun

-Zergatik aldatu zituzten festak ba?

-Ba ia eguraldi txarra izaten zen eta orain aldatu zituzten Abuztura. lehenago hasten ziren Urrian ostegunean eta astelehenean bukatu egiten zituzten.

-Eta nola ziren festak? Zer egiten da?

-Ostegunean hasten dira 10-etan, hasiera ematen diete kohete batekin, eta afari bat egiten da.

-Eta gero ze, egiten da dantza, edo?

-Bai, dantza egiten da.

-Eta Modesto etortzen al da?

-Han Modesto etortzen da bai.

+eta gero larunbatan eta igandean, zer egiten da? Egun inportanteak izango dira ez?

-Bai, oso inportanteak, ostiralean egiten da hamabietan meza magusia eta gero egiten ditugu lunch bat herriko jendeei eta arratsaldean etortzen

da orkesta bat eta jotzen du eta gero afaria, batzuk gelditzen dira Errikoetxean eta besteak joaten dira etxera familiarekin egotera eta horrela. Eta gero izaten da ba musika, Pameloren musika eta gero Larunbatean goizean batzuk izaten dira mus txapelketa eta arratsaldean ume-jokoak eta hartzen dute herrikoek eta arratsaldean ba, musika eta gero afaldu ondoren berriz musika.

-Eta igandean?

-Igandean goizean etortzen dira haizkolariak, haizkolaria ibiltzen dira horrela, batzutan ekartzen dute bertsolariak eta...

-Bertso txapelketa egiten al dute?

-Bertso txapelketak ez dira entzuten baina bertsolariak batzutan etortzen dira eta dantzatu egiten dute bazkaldu lehenago eta gero bazkalduta joaten dira. Arratsaldean, ba, musika ere afaria eta gero musika izaten da eta astelehenetan etxez-etxe ibiltzen dira ohitura denez gazteak...

-Zertarako?

-Modestorekin ibiltzen dira.

-Diru eske eta janari eske?

-Bai, diru eta herrikoak ematen diote ba ardoa eta zerbait jateko eta beste batzuk ematen diete dirua eta arratsaldetan joaten dira, baserritara baino goizetan etxez-etxe ibiltzen direnean gero joaten dira ostatura eta han bazkaria egiten dute.

-Urrian ez al da egiten festen errekoratorioa?

-Bai, Urrian egiten da larunbatan eta igandean ba, afari bat eta lehen ziren festan ba Urrian eta orain ba, berriz nola esaten da... Errekordatorioa egiten dira...

-Hori zer da afari bat? Modesto etortzen al da?

-Bai Modesto etortzen da.

-Eta afaria egiten de herriko etxean ezta?

-Bai, afaria bai...

-Gero, olentzero, zera, noiz etortzen de Olentzeroa?

-Bai, Olentzero egiten dute gazteek Olentzero bat beraren artean muñeko bat bezala edo panpin bat bezala...

-Ez al dio inork laguntzen egiten Olentzeroa?

-Bai, herriko batzuk laguntzen diete gazteei, eta gero abesten joaten dira ba, hator-hator eta abesti asko joaten dira etxez-etxe abesten eta etxekeon ematen diete goxokiak eta dirua eta gero arratsaldetan egiten dute ba, hori banatu eta jan eta gero ba, izaten da ohitura gizen bat Olentzerok disfrazatu eta etxekeok ematen diote oparia eta gazteek joaten dira eta han Olentzerok hasten da izenak esaten eta opariak banatzen ditu.

- Herriarren zehar edo gazteen zehar?
- Irkaitz egiten du hori da Basaburuko elkarte bat eta egiten da Basaburuko herri batean, normalean egiten da Gartzaronen.
- Eta beste egun batean sidra eta gaztainak ez al dituzte ematen?
- Bai, ba joaten direnei ematen diete gaztainak eta sidra eta zerbait jateko.
- Urte berrian ez al da deus ere egiten hemen?
- Urte berrian... ba, etxekoek bazkari bat egiten dute bainan ez da ospatzeko, bainan ez da batere normala. Familia biltzen da eta afari bat egiten dute, baino ohitura da familiarekin egotea.
- Bueno ba mil esker denagatik eta barkatu prolemengatik,
- Ba ezer
- Bueno agur.

E L K A R R I K E T A 2

- Nola duzu izena?
- NI Maripui naiz eta urte guztian irakasle bezala egiten dut lana eta orin dela hamar urte edo bost urte gutxi gora behera prestatzen zen hemen gauzak, pues, urte lehenbiziko jaiak urteen hasiera zen beti urte zaharra ospatuz eta hori.
- Nola ospatzen zen urte zaharra?
- Herrian bertan ez zen deusberriegiten bainan joaten ginen taldekoak gutxi gora behera gehienak afari egiteko herritik kanpoko jatetxe batera hor ostatuan eta gero handik gabe guztia gaupasa pasatzen genuen, edo beste batzutan ez ginuen... dantalekura joatenez edo herritako ostaturetara, bainan hori ez zen oso festa haundia gabe bakar bat zelako. Gutxienez neska parte hartzen duen hurrengo festan San Juan bezpera da baino bitartean mutilek beste zerbait daukate, Ihauterietan nolabait ere baka-
rrik mutilek hartzen dute parte urte ospatzen dute beraien artean eta haiek prestatzen dute Ihauterietan nola pasatzen dute hiru egun normalean ostiralerik iganderaino. Eta ostiral gabeen afaria eta afari ondoren beti musika eramaten zuten baino musika ezean larunbat arte bakar baka-
rrik beraiekin egoten zen. Larunbatean guztian herriko etxeetan barna erronda egiten zuten eta etxez-etxe pasatzen ziren gutxi gora behera ohitura beti segitzen dugunez pues, neskari afaria ere egiten zuten. Normalean gabetako afarian neskak parte hartzen genuela afarira joan eta gabe ondorako dantzan eta gero Ihauterik segitzen zuten berriz ere usatzen, ospatzen, afaltzen, gosarirekin eta gero igandean akatzen zen.

- Modesto ere etortzen al zen, jotzea musika, Modestok?
- Bai, nere urteeten etortzen zen gehienetan Modesto jotzea, Modesto etortzen zela Modesto oso gaztea zela eta gutxi gora behera hasi berri zenean eta gero ostean urtero etorri izan da bera, urte bat edo beste ez, zitulako beste gauzak.
- Gero Aste Santua nola pasatzen zenuten?
- Aste Santuan ez zen inora joaten gehienak herrian gelditzen ginen eta beste aste bat izango balitz bezala.
- Maiatza aldean ospakizunenbat ba al dago edo bazen?
- X -Herriko festan gutxi gora behera herriko gazte guztiak parte hartzen genuela San Juan bezpera izaten da. San Juan bezperan joaten dira mutiak ekartzera zuhaitz haundi menditik aurretik batzuk ibiltzen omen dira luzeena eta zuzenena zein den eta ondoren moztu eta ekarri eta denak parte hartzen dute gutxi gora bahera maiatza osoan zehar bueno pestaren bat.
- Santa Ageda ospatzen al zenuten?
- Ez, San Ageda ospatzen hasi da orain del ahiru edo lau urte, bakar bakarra euskal zenbitzutik egin zuten proposamena eskolatik eta eskolatik bultzatu genuen gurasoek ere baina gehiena euskal zenbitzutik eman zuen parte eta honela irikitzen da orain dela hiru lau urte.
- Eta gero "Miercoles de ceniza"-n zer egiten zen? Orain jendea egurrak eramaten ditu elizara eta hor erretzen dituzte eta gero eramaten dira etxera, zenizak edo, orain...
- "Miercoles de Ceniza"-z ez naiz asko akordatzeko ze beti ez naiz hemen egon eske...baino egurrena eta egurrak eramaten zirela sua berritzeko edo gainerakoa ur bedeinkatua eramateko hori egiten zen edo egiten da elizan baina Aste Santuko larunbatean.
- Gero loreak eramten ziren Martxoaren hemeretziak, lore horiak, San Jose edo zein da hori?
- Ez, ez du sekulan ikusi Martxoaren hemeretzia eramten San Jose loreak. Bai Maiatzan egiten zela haurra nintzela sei urtetik hasi eta hamar urte bitarte edo hola afaritan deitutako pertsonajeak, ez dakit oso ongi zer esan nahi zuten baina dakit San Juan aldiro eta bezpera aldiro jeisten ginela, jantzi zuriekin eta eramaten genuen loreak Ama Birginaren kantak eta gero abesten haste ziran elizak usoekekin egin behar genuel nolabait ere Ama Birginaren aurrean aburre itxura.
- Gero ekaina aldean edo julio aldean ez al dago beste ospakizunik?
- Ekaineko ospakizuna da hasi naizela kontatzen San Juan bezperako festa.
- Gero Berueteko festan octubre-en egiten ziren ezta?
- Bai.
- Noiz ziren horiek?

-Lehenagotik egiten ziren festak gutxi gora behera gaur baino gehiago irauten zuten. Bezpera larunbatean hasten ziren beti arrosarioko Ama Birjina hartzen zuten katuna bezala eta bezperako larunbatean hasi eta hurrengo asteko gutxi gora behera osteguneraino. Festak gaur egungo antzekoenak orkestra ekartzen zenetik gabeen jotzeko bainan gero garai hartan herriko jendea hartzen zuten parte asko ba haizkolari kanpotarrak ekarri beharrean normalean askotan herriko jendea izaten zen. Edo egiten ziren herri kirolak edo beste edozein gauza plazan parte hartzaileek eginak, herriarrak izaten ziren, esibizioa kanpotarrak ulertzen duten bezala, orduan parte hartzen genuen eran denek.

-Eta bertsolaritza ez al zegoen oso zabalduta, lehen, ez al ziren egiten txapelketak eta hemen?

-Ez, ez du sekula ikusi txapelketak bai jendeakbertsoak kantatzen dakitenak eta noizen beinka baino behin talde itxi eta ostatuan...

-Ze afarietan eta.

-Afaritan, ordu bakarrek erabiltzen ziren.

-Olentzeroaren, zera Olentzeroarena nola zen.

-Guk Olentzeroa ez genuen ospatzen guk egiten genuena zen eguberri bezperan elkartzen ginen unek, une taldeek eta egiten genuen herriko etxe guztien barna eskaerak, pasatu Ama Birjina eta San Jose eta jaiotza. Gutxi gora behera nazio guztia eginez eta guk eguberrietako abestiak kantatzen.

-Eta zerria noiz hiltzen zen hemen, bazegoen garai bat zerria hiltzeko eta horrelako...

-garaiak orain ere gutxi gora behera berdina da, normalen hasten dira txerria hiltzen azaroan eta azaroa eta urtarrila, otsaila bitarte, bero ez dagoenean.

-Zer esan nahi txerriaren hilketa? Zer zen garai bat markatzen zuen edo zen bakarrik...

-Ez, ez dut uste deus ere markatzen zuela, bakar bakarrik txerria hiltzen zenean, haragi edo txistorrak nahi freskotasuna behar dela. Pentsatzen dut, bainan nik hortatik ez daukat ideiarik

-Bueno ba, mil esker.

- Tia.
- Zer?
- Nola duzu izena?
- Maria.
- Eta noiz jaio zinen?
- Berueten, etxean Sagastia.
- Sagastia etxean jaio zinen? Eta zenbat urte dituzu?
- Pues 92.
- Bueno, pues nahi dudana kontatzea ea nola ospatzen zen hemen erregearen etorrera.
- Sarrera?
- Erregea, bai
- Ze.
- Hilbeltzan noiz etortzen ziren erregeak honera eta nola ospatzen zen.
- Ez diot entenditu honi.
- Erregeak noiz etortzen ziren eta nola ospatzen zenuten. Erregeak, bada-kizu "los reyes magos".
- "Los reyes magos".
- Nola ospatzen zen hori.
- Ordun ez, hori txiki denboraten ez zegoen erregerik eta!
- Ez ziren pasatzen?
- Ez
- Ihauteriak eta nola ospatzen ziren hemen.
- Eh?
- Ihauteriak
- Ihauteriak, majoak egiten zituzten. Jando hortxen, etxe partikular batetan.
- A etxean egiten al ziren?
- Bai.
- Aste Santua nola pasatzen zen hemen?
- Aste Santuan, santifikatuz ongi.
- Elizara egun guztietan joaten zen, meza zegoen?
- Eh? Bai egun guztitan meza.
- eta ez al zenuten afari edo ospakizunik egiten?
- Afarik egin ez, ez... Ihauterietan bai gainerakoan ez.
- Martxoaren hemeretziak loreak eramaten al ziren elizara?
- Ez San Jose lorarik ez
- Eta Maiatza aldean zer egiten zen.
- Gaur egun baino gehiago beinik behin, Jesus!. Angelitak eta pihatzen

-zituzten majo.
-Eta zer egiten zuten abestu?
-Bai.
-Zer abesten zuten, kantatu?
-Bai, Ama Birjiniari kantatzen zioten.
-Baldakizu abestia?, kanatatuko al diguzu?
- "Goazen goazen guztiok,

Ama Birjinagana
eskeintzera bihotze
loretxo ederrara
eskeintzera bihotzez
loretxo ederrera"

Lehenago majo kantatzen zuten, lehenago bai, eta bezperetan gai hori zen
errosarioa eta kantuak eta elegante egiten zen orduan!

Oraingoan miseriena neskatoa!

-Julioaren 24-ean zer egiten zen?

-Ez dakit zer egiten zen orduan.

-Eta Berueteko festak nolakoak ziren.

-Nola oraingoak ez bezalakoak behinik behin, Ama Birjina errosariokoak.

Ullo haun eta elkarrekin elkar orain baino eramaten ziren, orain batek
alde batera behatu besteak beste aldera behatu, bat ala dela bestea
hola dela, lehen ez zen horrelakorik, baina orain bai. Hirietako jendeen
unioa zen orduan.

-Bueno pues mil esker denagatik.

-Bai.

Elkarrizketa honetan ikus dezakezuetenez, nere tia ez dago
trote haundietarako eta hasiera batetan pentsatua neukan kentzea. Baina
ikusita bere ikuspuntu hain erlijiosoa eta nola miresten du bere gazteri
festak autatu dut uzteagatik, interesgarria iruditzen zaidalako beraren
ikuspintua.

-Valentin Arana.

-Berueten jaioa?

-En el año 1910, 14 de febrero

-Ze etxekoa zara?

-Petritxonekoa.

-Zenbat urte dituzu?

-86 14 de febrero bete nituen.

-Kontatuko al diguzu ea nola ziren herriko festak eta.

-Herriko festak alde asko ezagutu ditut nik. Ue, txiki denbora aldean eta txintxurra eta joaten ginen izaten zen orduan, txinttune eta danborra. Zubitarrak (Zubieta herrikoak), pontxo zer izenenen zioten etortzen ziren, festa bezperan, hiru egunez festarekin (haiekin) gure txiki denboran. Eta gero akordeonakin hasi zen gero pasa Ihauterik.

-Eta gaupasaren antzekoa egin ez, edo ez zen egiten gaupasa?, ba al dakizu zer den gaupasa?

-Gaupasa ez zen izaten orduan, gero herriko mutilekin eskilak igurtzen, Beruetetik zehar. Berueten eskeini egiten zen festaren zehar eskeini, beno jostorren zehar etxetara etorri eta herriko mutilek bazeukaten etxe bat batzutan inoiz izan den lekutan ematen zioten neskatzek piporropila. Dantzan ibiltzen ziren eta hola. Piporropilak goxoak izaten ziren horaraintxe izanen ditu karro batzuk akaso. Irakutsi, irakutsi.

-Eta Ihauteriak nola ospatzen ziren herri osoaren zehar?

-Ihauteriak holaxe izaten ziren hiru egunetan.

-Eta ze egiten zen hiru egun haietan?

-Hiru egunetan etxe bat alkilatzen zuten eta etxe hori alkilatu eta han hiru egunez herriko mutilek eta gero gaztetan han egoten zen, denak herrikoak ziren. Jan eta hantxe, gosari, bazkari eta afari denak.

-Eta nola lortzen zuten janak eta?

-Kozinera herrikoa izaten zuten generalen urte asko "esaten hari da urte askotan jende edo kozinera asko higaro direla". Urtero edozein etxeetan zela guk joaten ginen kozinara. Otsarkomikoa han zela, aspaldikoa.

-Eta jana nola ekartzen zuten?

-Hiltzen zutenean ardi, harik haietako bi hil eta haiek jan, hiru egunez Bi hare edoedo hola, beno segun eta zer ematen zioten hariarta gutxi gorra behera, hiru egunez egiten genuen festak, Berueten.

-San Juan egunean zer egiten zen hemen?

-San Juan herriko patrona izaten zen eta festa haundi.

-Eta nola ospatzen festa haundi hori?

-Hori, hiru apezak ematen zuten meza, San Juan egunean, Hiru apezak he-

-rrin San Juanen bilordako hamarretan edo hamaiketan, hiru apezak etor-
tzen zen mailekoa eta famatua izaten zen, meza earra (ederra), meza ele-
gante eta gero San Juan egunetan festa haundia gainera. Atsaldean, baili
(dantzaldia) eta horrela.

-Eta noiz izaten zen gazteek mendira joaten zirela zuhaitz baten eske?

-Nola?.

+Maiatzaren eske noiz joaten ziren.

-A...Maiatzaren eske? San Juan bezperan joaten ziren.

-Eta nola aukeratzen zuten?

-Herriko gazteek eta gehienetan artzaiek hor garaietan gure idenboran
aurreko artzaiak mendian egiten zuten lo, lo eta jan lo eta ardi jeitzi
mendiko bordan.

-Bordetan ezta?

-Mendiko bordetan haiek bilatzen zuten aurretik non zen banakakoa, poli-
ta, banakakoa luze, eta hura bizkarrean hartu eta San Juan bezperan eta
bizkarrean ekarri. Hemendik joan zen kuadrilla bizkarrean ekarri eta
gari, gari paratzen zuten San Juan bezperan gari paratzen zuten maiatz
hori urrian sartua.

-Eta zertarako da hori?

-Kostunbreak lehendik horrela zen eta arbola, arbolarbol batea pagoa.

-San Jose egunean zerbait egiten al zen?

-San Jose egunean ez,

-San Jose loreak ez al ziren hartzen eta.

-Ez, Ni San Juan honetan elorri paratzen zen lehio, ateetan San Juan bez-
peran hori, eh?.

-Zer paratzen zen?

-Ellorriak.

-Zer dira horiek?

-Utzinda lore aska batzuk, ate ondoan eta ate kontratan, bakoitzak bere
etxeetan. Hori ez dira paratzen ere ez.

-Eta zertarako paratzen zen hori?

-kostunbre hala zen. Horain hasi dute. Kostunbrea hala zen.

-Noiz hasten dira belarrak?

-San Juan bezperan edo... denak "fuegos de San Juan" hogueras de San
Juan" esaten diotenak haiek behatzen, beti

-Eta zer egiten zen, bakoitzaren larrainean edo?

-Bakoitzak bere etxean larrainean eginda.

-Eta zer han bakoitzak salto egin bakoitzak bere etxean?

-Saltoka ibili, saltokan ibili.

-Eta festa haundia orduan?

-Ordun festa haundi, juerga haundia.

-Orduan etxe bakoitzean janari haundia egingo zen?

-Etzetan ere alde egiten zen, eta gazteek saltoka zhartxoak igual, ahal zuenak. Hola, san Juan bezperan izaten zen hori. "Hogueras de San Juan" esaten diote erderaz. San Juan bezperako suek edo hola. Gero San Juan egunean festa haundia, festa haundia. Herriko patrona bait zen hemen, San Juan, Herriko patronoa, oraindik izaten da bai aurreko patronoa San Juan, printzipalena.

-Erregearen etorrera noiz egiten zen hemen?

-Nola?

-Erregearen etorrera, Urtarrilan ez al da, bostan bezpera? Ez al zen hemen zerbait egiten? Reyes magos edo...

-Ah! Bai, bai erregek...

-Zer egiten zen?

-Errege bezperan, joalekin ibiltzen ziren herriko mutil guztiek egun guztian, herriaren zehar, bueltaka herriko mutilak denak, denak edo gehienak behink behin. Egund guztian, euri bazen, herrian bueltaka eta gab bez berriz lagunak irtetzen ziren gabeen mutil haundiagoxeak irtetzen ziren herrian joaleak hartu eta bueltaka. Gustua ere hala zen. Izkilekin jo egiten zuten, gabeko hamarrak aldera edo, pasilotan izkilek alde egiten zuten bainan gabeko hamarrak aldean edo horrela, izkilek edo alubio-na paratzen zuen eta gero zortzietan tiro batzuk eta izkilak jotzera joaten denean, tiro batzuk eta buelta batzuk ematen zuten. Batek hori egin batek tiroa besteak ementzio PoM! batez PoM! batez izkilek hari ziren denboran, tiroka egoten zen.

-Eta Aste Santuan? Zerbait egiten al zen hemen?

-Karrakak, oi! karrakak paratzen zituzten!. Aste Santuan karraka egiten zen. Karrakekin mutikoak, karrakekin Aste Santuan "Semana Santa"-n Haiek ere hiru egunez, hiru egunez edo bi egunez karrakak egiten ziren.

-Zer dira karraka?

-Karraka? Zurezko zera batzuk...karrakak, nahi al duzu ikusi karraka?

-Nahi baduzu?

-Segituan erakutsiko dizut.

-Ea nola den karraka? Emaiozu pisko bat. Horrekin...

-EZ DIOT ETENDITZEN ESATEN DUENA HAINBESTE SONUAREKIN.

-Eta zertarako?

-Gero Horrexeko ~~stunbre~~ berriz. Semana santan egiten zen. Hiru egunez.

-Eta horrela hiru egunak segituan?

-Hiru egunez bai, eta gero egiten zen gabeen, elizan apezak egiten zuen naboleta irtetzu eta jainkoaren aurrean ostegun santuan karraka jotzen genuen. Eta txeisenekoak ez, karrakak egiten genuen. Bi minututan edo horrela. Hola karraketan, poza Oh! mutikoak orduan, poza haundia.

- Soinu haundia ateratzen du horrek, ez?
- Soinu haundia. Kostunbrea hala zen eta. Orain ez duzute jakinen zer esperientziak...Karraka soinua jartzen zuten ongi, karraka...
- Eta kontatuko al diguzu, noiz izaten ziren hemengo festak?
- Hemen 1 de octubre, el primer domingo de octubre.
- Egiten zen?
- Bai, eta nola hasten ziren festak? Eske orain kohetekin eta denakin hasten dira festak, hamarretan kohetea botatzen dute, eta lehen nola hasten ziren?
- Orduan koheterik ez ziren izanen, zein herrian pontxo zubira joaten ziren lehenago. Herri guztian egiten zen bezperan erronda. Herri guztian ullaaz buelta bat egin eta hasiera festan hasten genuen izaten.
- Eta zenbat egun irauten zuen hori?
- Festak hiru egun.
- Hiru egun. Eta bazkariak eta afariak egiten al ziren Errikoetxean (tabernan)?
- Ez, ordun garaitan ez, etxetan festa haundia. parienteak etortzen...
- Orduan pariente guztiak biltzen ziren?
- Hor biltzen ziren bai.
- Eta festa haundia.
- Eta hortxen festan parienteak, hortxen parienteak eta gero plazan baile egunero. Jaia arratsaldean, Orduan hala izaten ziren festak.
- Kontatuko al diguzu kondairaren bat edo zu jakiten duzun zerbait?
- Neska galduaren kondaira hura, sorginak eraman zituztela...
- Ah! Txasenekoa omen zen. Hemengo kostunbrea zen errokan hari egiten zuten benako garietan lehenago asko neke izaten zen, ni asko. Hari egiten zuten halako erroka esaten zioten, katxarro batzutan. Haria hariakin egiten zuten gero ohatzetako (ohea) maindireak eta horrela. Hariarekin eta kontrakoa bazen Lekunberrin zen ehun sadio esaten zioten. Hariarekin egiten zituela. Eta Txasenean ibiltzen omen zen ba larunbatean, kontu hori aspaldia oraindik ahitu dut nik, aspaldikoa da. Txasenean ibiltzen omen zen kuadrilaren bat eta gabe batean neskega faltatu. Horrera joan hemendiko erreka uraren eske pozal on batekin eta neskatoa falta omen zen eta pozalak bota omen zituen lehiotik behera, bai tximinatik behera norbaitek eta egunezkoak egunezko eta gabezkoak gabezko esan omen zuen eta sartu eta sorginek eraman omen zuela, sorginek zer eraman behar zuten! Norbaitek eraman! Garaietako kontuak, orain kontu horrek izanen ditu berrehun urteren igual.
- Kontatubai, kontatu bestea.
- Hemen hil zuten mutil bat oinetan gaztea, Ameriketara atera zuten, oinetan gaztea. Eta haiekin batera etorri zen Ihardiko mutik bat Txandorra-

-rekin ibiltzen zen garai haietan hemen. Eta erosi egin zuten, txandorra erosli, ikatza egin zuten eta beraren kontuak eman, dirua eman eta urte osoko, gauzak nola izan behar zuen lorogehitamar duro ehun dur eskasa.

X
Hue etxeko lotea pagatu Luisitaren aurrean tiendaren aurrean eta jende aurrean eta sari eman zioten kontutan, sari eman zioten dirua,dirua baino zeinek eramango zioten behorrak, eramantzak berarekin dirua, eta dirua berarekin hartu zuen eta mendian hari zela holako lekuan, mendian pasatzen hari zela buruan izkoa eragin zion eta hil zuten gizon hori, dirua kentzeagatik, eta gero falta zela gizona, falta zela gizona eta goardiei parte eman zioten etorri zen guadia, hartu zioten ea zer zuten eta hori hil zutela gizona eta Leizara joan ez zegoela etxean eta ere Beruetar bat zegoen txoneko milkoarekin han mutil zegoena, Uharten ez zen zerbaitek egin zuen, lurran zutela mutila eta gero anaia parte eman zuenean orduan hartu egin zuten bi anaiak eta Juan Martin eta Joxe zen eta hartu zituztela ta ez zekitela deus ere eta han izango zela eta eskapatu egin izango zuela eta horrela kontuekin, baino berriz ez zioten uzten eta zortzi egun berehala pasatu ziren bila eta ez bilatzen eta nonbaiten ere bilatu zuten leze batean eta leze ondoan jakintsu artaldea han zegoen,han motor hotsa alde zegoen, jakinki aitako batek leze ondoan, han mutila egondu zela, eroso baitua eta hara bota omen zioten gizona, diru kenduta. Hartzatik hartu zen eta azken honek klaba-tu zioten eta gizon hura artu eta atera zuten leizetik ermitara, nik hamalau urte nituen orduan, bainan hala izandu zen gizona. Gero gizon horiek eramane zuten hemendik anai zaharra pentsatu omen zuen, ezkondu zen zaharrena, harrek pentsatu omen zuen hil zuten eta gero pertsona zaharrena hartu egin zuten hemendik eramane Iruñera, Iruñean hil zituzten haiek egin zuten akzio txar hori en el mes de septiembre, septiembren azkenean ia octubre-ren lehenean eta eramane zuten Iruñera preso ordun eta 1925 2 edo 3 de febrero aurkatuta Iruñean batzuk aurkatuta beste batzuk fusilatuta Iruñean.-

-Zenbat jende eramane zituzten Iruñera?

-Hiru anaiak.

-Hiru anaiak?

-Biek hil zuten,bizi eman hirugarrenari, zaharrena pentsatu omen zuen ezkondu zen, Mikela, eta harrek pentsatu omen zuen eta ia galde duk eta hiru anaiak eramane zuten preso, hiru anaiak atsilotu zituzten. 1925 2 edo 3 de febrero.

- Eta gero jendea zer pentsatu zuen Beruetar jendeataz?

-Gero fama hartu zuen "El pueblo de criminales" esaten zioten Berueteri askotan, Iruñean.

- Duela zenbat denbora gertatu zen hau?
- Hori 1924-an hil zuten octubre-n eta 1925 hil zituzten el 2 de febrero
- Eta orain jendea pentsatzen al du kriminalen herria dela?
- Orduan kriminal izugarriak zeuden,
- Gaur egun badira haundiagoak, telebistan agertzen direnak.
- Bai, egi, egi. Ordun bai pasatu zela.=
- Bale ba, mil esker.
- Ala neskatoa kendu.
- agur.

OHARRA: Euskara oso itxia dauka honek eta arazoak izan ditut entenditze-ko beraz izan daiteke, testan jarritako zenbait gauza oso zuzen ez ego-
tea.